



Auzolana XXI. mendean

Oñatin, 2017ko urtarrilean



Sarrera

“Auzolan pertsonen oinarrizko beharrianak Garapen Komunitarioaren bidez asetzea helburu duen egitasmoa da. Gizarte eraldaketaren ikuspegitik abiatzen da, eta askapena lortu nahi du; askapena, norbanako, kolektibo, gizarte eta nazio gisa, Euskal Herrian.” Sarrera honen bitartez Jasone Mitxelorenak hasiera ematen dio Auzolana gaiari eskaini dion lan mardulari (J. Mitxelorena; Auzolanaren Kultura, Txalaparta).

Han eta hemenka Euskal Herrian leku anitzetan auzolana garatzeko elkarteak eratu dira. Sakonean badago gure kulturarekin bat datorren pertsonen artean antolatzeko auzolan izenpean bultzatu nahi den korrante komunitarioa. Baina zalantzarik gabe ikusmolde hori beti iraganera garamatza eta batzuetan kostatu egiten zaigu auzolanaren errealitatea gaurko parametroetara ekartzea.

“Auzolanaren jardueraren azalpenetik abiatuta, lan modu horrek adierazten duen sistema zabalago bati buruz mintzatzeko aukera ikusi dugu: auzo hitzaren adierak komunitate bizitza jakin baten berri ematen digu, historikoki batzarrean oinarritutako gizarte antolakuntza berezi bateratu duena, berezko Zuzenbidean oinarritu – Pirinioetako/Nafar Zuzenbidea– eta horren arabera bizi izan dena, herrialde gisa egituratu dena –Nafarroako Erresuma–, mundu-ikuskeraren berezia sortu duena eta garai berriei egokitu zaiena.”

Antolakuntza horren ezaugarrien artean, honako hauek nabarmendu behar dira: herri mailako kontuak **Batzarraren edo batzordearen** bidez kudeatzen dira, komunitatearen zentzua berebizikoa da eta, oro har, gizarteak kohesio handia du. Horregatik, auzolanaren definizioa eta eskura dauden adibiderik adierazgarrienak jasotzeaz gain, lan modu horrek adierazten duen sistema zabalagoa ere islatzen saiatuko da.

Nazioarteko elkartasunean oinarritutako Gobernu Kanpoko Erakundearen kopurua edo odol eta organo emailerena Europako handienak dira gurean, elkartasun horren adierazgarri; elkarlanerako eta antolakuntzarako gaitasuna ere agerian gelditzen da euskararen aldeko, presoei elkartasuna adierazteko edo bestelako ekitaldien antolakuntzan, auzolan erraldoi gisa antolatzen diren horietan, eta ikastolak edo kooperatibak ere elkarlanean auto-antolatzeko joeraren –eta gaitasunaren– adierazle dira.

Herriaren –komunitatearen– alde musu-truk edo doan egiten den lana da Auzolana; bertako kide izanik, herriari eskaintzen zaiona. Antzinakoa da lan egiteko modu hori, eta gaur egun bizirik dirauten antzinako kulturetan aurki ditzakegu auzolanaren baliokideak, bakoitza bere berezitasunekin noski (Afrikako kulturak, Maputxeak, ...).

Gaur egun arte iritsi den auzolana komunitateak erregulatzen du –historikoki, haren kideek osatutako herrietako Batzarrak, eta geroago, udalak–. Ohiturazko lege gisa funtzionatu du Euskal Herri osoan, baina Nafarroan, adibidez, herri-administrazioei buruzko legediak ere jasotzen du, eta herrietako ordenantzen bidez arautzen da. Arabako hainbat herritan ere ordenantzek agintzen dute auzolanaren betebeharra. Kasu horietan derrigorrezko bihurtzen da, eta egin ezean, zigorrak edo isunak ezartzen

dira. Auzolanera deitutako egunetan ezin bada joan, ordezkoa bidali edo beste moduren batean egin behar zaio ekarpena herriari. Herriarentzat musu-truk egiten diren lanak auzolantzat har daitezke, eta, beraz, hala egiten dutenek auzolan egunetan ez dute parte hartu beharrik izango. Materiala, eta kasu batzuetan jan-edanak, Udalak jartzen ditu.

Auzolana modernizazioaren aroan

Industrializazioak euskal jendartea erabat aldatu zuen. Antzinako garaietatik ordura arte auzo-komunitateak izandako indarrak gainbehera egin zuen, eta horrekin batera, auzolanak ere bai. Industrializazio berriak eragindako urbanizazio masiboarekin, hautsi egin ziren ohiturazko jendarte-antolakuntza komunitarioan, auzo-komunitatean, estuak ziren harremanak, eta ordura arteko talde kohesio handiari ere eragin zion.

Auzolanaren kontzeptua ezin da denboraren kontzeptutik bereiztu. Industrializazioaren iraultzak, hain zuzen, denboraren kudeaketaren aldaketa ekarri zuen eta lanerako norberak eskaintzen hasi zen denboraren ikuspuntua guztiz materiala bilakatu zen. Denbora merkantilismorako tresna berri bat bihurtu zen mentalitate kapitalistarentzat, eta egunean zehar lanaren bitartez, kapitalista eta langilearen artean harreman kontraktuala sortu zen, non bigarrenak, lan-esku moduan, bere denbora lehenengoari saltzen zion. Jendarte horretan bi denbora-esparru nagusitu ziren: lan kontraktual-denbora eta esparru pertsonalerako denbora. Non geratu zen, orduan, komunitateari eskaintze zitzaion denbora-esparrua?

Hiru motako denbora-esparruen arabera hazi eta hezi egiten da pertsona: behar fisiologikoetarako derrigorrez erabiltzen den denbora-esparrua (siko-fisiologikoa), beste bati saltzen zaion denbora-esparrua (produktiboa) eta aurretik aipaturiko bi denbora horiek bete ondoren sobratzen den unea edota denbora-esparru "askea" (subiranoa). Denbora aske honetan, norberari dagokio zer egin nahi denaren arabera programazio bati ekitea; alegia, norberak bere nahietarako erabiltzen den denbora-esparrua da denbora aske hau. Baina, zein punturaino denbora-esparru honetaz benetan subiranoa gara?

Auzolana komunitateari eskaintzen den dedikazioa da, eta horretarako erabiltzen den unea denbora-esparrua denbora askea da. Ez dago esan beharrik, modernizazioarekin, beraz, auzolanean aritzeko erabiltzen den tarte izugarri murriztu dela.

Auzolana, beraz, krisian dago; gure garaiaren aurka doan higitua geratu den mentalitatea da. Norberak bere denbora aske horretan, hau da, bere astialdian (denbora aske horretan programatu gabe dagoen denbora), proiektu sozial bati zenbat denbora eskaintzen dion galdetu beharko lioke bere buruari (aisialdia astialdian egiten diren ekintza programatu multzoa da).

Ondorio zuzena honako hau da: astialdirako eskaintzen diren ekintza gehienek indibidualismorantz garamatzate. Berdin da zein esparruetan, formazioa ala jarduera fisikoa, ekintza gehienak norberaren aukeran hasi eta amaitu egiten dira. Lehen mendira lagun artean tarte bat elkarrekin igarotzeko joaten zen; orain lagunak ia

traba bat bihurtu dira mendian korrika egiteko atletismo pista bezala erabiltzen baita. Dagoeneko ia ez daude lasterketa popularririk, egun, gehiago handi bat errendimendu zentroetara joaten da entrenamendu pertsonalizatu bat “erostera”, ondoren egingo duen jarduera fisiko horri ahalik eta emaitza hobereana ateratzeko asmoz.

Auzolana eta pertsonaren garapena: auzolana aisialdiarekin parekatu daiteke?

Maslow piramidea gizakiaren motibazioei buruzko teoria bat da, Abraham Maslow psikologoak 1943 urtean plazaratutakoa. Teoria horretan, pertsonaren beharrak eta desirak horiek betetzeko, premiaren arabera sailkaturik daude: piramidearen oinarrian behar fisiologikoak daude, hala nola jatea eta edatea; horiek aseta, pertsonak babesa eta segurtasuna bilatzen ditu; ondoren jendarte atxikimenduaren motibazioa sortzen da, elkartzea eta partehartzea bilatuz; jarraian, jendartearen onespina eta azkenik, piramidearen gailurrean, autoerrealizazioa bilatzen du. Beharren mailakatze honek pertsonen jokabidea azaltzen du hainbat arlotan. Ez da kasualitatea mailakatze sistema honetan bost mailetatik hiru inguru sozialarekin dugun harremanetan oinarritu izatea. Nahiz eta gaur egun Maslow piramidea erreferentzia zaharkitu bezala har daitekeen, islatzen duen ideia orokorretatik ondorio zuzen bat atera daiteke: pertsona, berak bizi duen komunitatetik, elikatu eta aberasten da; pertsona “sozialagoa” egiten da, bertan aurkitzen baitu atxikimendua, onespina eta autoerrealizazioa.



Aisialdia denbora asketik egiten dugun aukera (programazioa) dela uste dugu, baina ziur al gaude horrela dela? Hemen ere kritikotasuna zorroztea falta zaigu. Gure aukera benetan askea izan beharrean, nahiz eta denbora-esparru horren subiranoak garela pentsatzen dugun, ez gara konturatzen zein punturaino, era anbiguo batean, sistema sozio politikoak bandejan eskaintzen dizkigun jarduera kontsumitzaileen aurrean, guztiz pasiboak garen. Horren bitartez jendarte mota bat eraikiz doa non indibidualismoa eta konpetibitatea oinarritzko bi ezaugarriak diren. Sistema neoliberalak globalizazioa balore positibo bezala hartu ohi du, eta baliteke ezaugarri positiboak izatea. Baina neoliberalismoaren iturritik bultzatzen den globalizazioak uniformizazio baterantz garamatza non baloreen aniztasuna murrizten doazen. Horrela, eredu sozial jakin bat egonkortzen doa.

Gure hizkuntza eta kulturak esparru komunitarioak behar dituzte. Hizkuntza bat ez da besterik gabe mezuak transmititzeko euskarri bat, hori baino askoz gehiago da. Maiz azterketa soziolinguistikoetan, euskara, aisialdian zein ahula den azpimarratzen da, eta egoera horri buelta emateko erabiltzen diren formulak edota proposatzen diren politikak, beti azalekoak edota partzialak direla aitortzen da. Izan ere, gure hizkuntzaren normalizazioak aisialdi euskalduna behar du, eta horrek, derrigorrean, hizkuntzaren erabilera komunitatean elkarrekin gozatzen den aisialdi-esparrua behar du. Zein da orduan euskara eta euskal kultura indartzeko bultzatu behar dugun aisialdia?

Aisialdirako proiektu pedagogikoa

a, Aisialdia

Aisialdia proiektu pedagogiko integralean txertatu behar da. Proiektu horrek pertsonari garatzeko laguntza eskaintzeaz gain, komunitate kulturalan bere burua txertatzeko laguntza ere eskaini behar dio. Euskal curriculumak irakaskuntzan gazteek euskal kulturaz izan behar duten oinarritzko ezagutza finkatzen duen bezala, non aurki daiteke aisialdiaren esparruari begira horrelako proposamenik? Nola ziurtatu daiteke aisialdiren bitartez komunitate kulturalarekin identifikazioa sortzen dela?

Zoritxarrez, gure buruari horrelako gogoetak egiten dizkiogun bitartean, aisialdi eredu erasokorra garatzen doa. Jendartean diren hedabideak oso boteretsuak dira eta hedabide hauen bitartez, lehen etengabe aipatu dugun jendarte eredu zehatz bati erantzuten dioten balore jakin batzuk zabaltzen ari dira, hau da, individualismoa eta kompetibitatea. Balore unibertsalen izenean balore globalizataileak zabaltzen ari dira eta komunitate kulturalarekin lotzen diren jardueren galeraz, komunitate globalizatailearekin zer ikusia duten jarduerak gero eta gehiago indartzen eta zabaltzen doaz.

b, Etnoludikoatsuna

Aisialdian egiten ditugun ekintzak, jatorriz ez dira unibertsalak. Ekintza eta jarduera guztiak murgiltzen diren kulturaren sare sinbolikotik sortzen dira. Sare sinboliko honen arabera ekintza hauek ezaugarri nagusiak hartzen dituzte, hala nola espazioarekin dagoen harremana, denborarekin egiten den erabilera, beste pertsonekin sortzen den komunikazioa ... Sare sinbolikoak Euskal Kulturak duen barne logikari erantzuten dio eta hori da hain zuzen komunitatea eta kulturaren artean armonia sortzen duen mekanismoa. Hori da hemen **etnoludikotasuna** deitu nahi duguna.

Aisialdia ezaugarri kulturalarekin lotu behar da. Askotan partikularra indartzea unibertsala baztertzea dela dirudi. Baina gogoeta bestelakoa izan daiteke: berreskura dezagun gure izaerarekin bat datorrena, eta horrela hobeto jakingo dugu unibertsala den dimentsioa preziatzen.

Kultura bakoitzak bere sare sinbolikoa du, eta horren bitartez pertsonen artean elkar komunikatzeko, gure espazioa zein denbora kudeatzeko, ..., ludikotasunak ezaugarri bereziak hartzen ditu; alegia, kulturak ezberdintzen dira, hain zuzen, unibertsalak ez diren sare sinboliko ezberdinak garatzen direlako.

c, Ludikotasuna

Denok zoriontsu izatea nahi dugu, baina modernizazioaren ondorioz bizi dugun denbora zatiketa erradikal honen ondorioz, zoriontasuna lantzeko astialdia denbora-esparru egokiena dela iruditzen zaigu, beraz, etengabe pentsatzen eta amesten bizi gara zoriontasuna noiz etorriko ote den. Zoriontasunaren pertzepzioa prozesu fisiologikotik abiatzen da. Herri txiroetan, egoera larri batean jende zoriontsuak dauden bitartean, herri garatuetan gehien zabaldua dagoen gaitzak depresioa eta antsietatea dira. Abiadura handiz unez-une bizitzeko gaitasuna galtzen ari gara, horrela pentsatzen da, orain ditugunen aldean geroak gauzak hobeagoak ekarriko dizkigula.

Une bakoitza gozatzeko etengabe ludikoa izan behar da. Egoeren aurrean gure jarrerak egoera horretan dugun pertzepzioa finkatzen du. Gure metabolismoan etengabe bizi garen egoeren aurrean hormonak jariatzen dira. **Ludikotasunarekin** duen lotura zuzena serotonina hormona da. Jakin badakigu serotoninaren neurria jaisten denean nekea, depresioa, etsipena, lo egiteko arazoak, ea. sentitzen direla. Eta serotonina noiz eta nola sortzen da? Gure burmuinak egoera ludikoa dela kaptatzen duenean.

Jolasa, jokoa eta kirola, maiz, adin jakin batzuekin lotzen dira. Prozesu progresibo batekin identifikatzen da; hau da, haurrak jolasten dira, ume/gazteek jokutzen dute eta helduok kirola egiten dugu. Ludikotasuna, berriz, ez dator bat ikuspuntu horrekin. Bizitzan etengabe jolasaren presentzia egonkorra izan behar da, eta jolasa esaten dugunean jolasak duen dimentsioa azpimarratu nahi dugu, hots, espontaneoak, arau gabekoak, ez formala, aldakorra, deskubrimendurako bultzatzen duena, ... Zoriontsua izateko, norbere bizitzan integratuta izateko ezinbestekoa da ludikotasuna.

Txikitatik barneratzen goazen jolas-joko-kirol zatiketa horrekin apurtu beharko litzateke, baita ludikoa soilik aisialdi denbora-esparrura mugatzen denaren ideia ere. Zatiketa hori sekulan ez litzateke sortu behar. Lan eginez plazera senti daiteke, jarduera ludikoak eginez asko ikas daiteke!

J. Huizingaren historialari Herbeheretarraren ustetan *“kultura jolasaren bitartez sortzen da, kultura, hasiera batean, jolasa zen”*. Historian zehar gizakiak aurrez aurre zituen arazoak esperimendatzen irtenbideak bilatu zituen. Horrela, jolasa bi ezaugarriekin lotzen da: esperimendazioa eta deskubrimenduarekin. Pertsonaren garapenean gauza bera gertatzen dela baieztatu daiteke.

Deskubritzeko eta esperimendatzeko grina azken hatsera arte bizirik mantendu behar da. **Ludikotasuna** pertsonaren garapenerako ezinbestekoa bada ere, pertsonen arteko harremanetarako ludikotasunak bere biziko garrantzia du. Pertsonen arteko harremanak etengabe besteren harridura eskatzen du. Bi pertsonak nahiz eta elkar ondo ezagutu, elkar deskubritzeko egoera berriak sortu behar dituzte, hau da, bi pertsonen artean harreman ludikoa etengabe landu eta zaindu behar da. Bi pertsonen arteko harremanetan ludikotasuna galtzen bada bi pertsona horien arteko harremana hil egiten da. *“Ludikotasuna sortutako pertsonen arteko oinarritzeko harreman hori*

sinbolismo kulturalaren jatorria bihurtzen da.” (LAGARDERA F. , LAVEGA P. (2003) Introducción a la praxiología motriz).

d, Autotelikoa

Pertsonaren zorientasuna orainean eraikitzen da; ezin baita pentsatu etengabe etorkizunaz zorientasunaren iturri bezala. Orainak zorientasuna eskaintzen badigu, horrek esan nahi du praktika, ekitea dela sentazio horren iturburua. Kanpotik datozkigun estimuluek / produktuek, aldiz, ez digute uzten uneaz gozaten; uste dugu “erosten” dugulako gozamina ere berarekin datorrela. Baina ez, errealitatea bestelakoa da. Pertsona benetan zoriontsua da erronka batean murgilduta dagoenean, eta erronka hori bere trebetasunaren mailatik zertxobait aurrean baldin badago motibazio sentipena areagotu daiteke. Kasu horretan pertsona gustura sentitzen da bere buruarekin, esperientzia **autotelikoa** bizitzen ari dela esan ohi da.


Esperientzia autotelikoa guztiz pertsonala da, bakoitzak dugun “zonaldea” baita. Aipatu dugun bezala bi kontzepturen arteko erlazioaren arabera zehazten da zonalde hau: erronka eta trebetasuna. Lau egoera marraztu ditzakegu:

a, erronka handia da eta ekintzak eskatzen duen trebetasuna handiegia da: sorraraziko den sentazioa antsietatea izango da.

b, erronka txikia da eta ekintzak eskatzen duen trebetasuna txikia da ere: sorraraziko den sentazioa gogogabetasuna izango da.

c, erronka txikia da eta trebetasuna handia: sorraraziko den sentazioa asperdura izango da.

d, erronka handia da eta trebetasunaren maila handia ere: sorraraziko den sentazioa autotelikoa izango da.



e, Prokomuna

Garaia iritsi da aisialdia ondasun komuntzat aldarrikatzeko. Ikuspuntu merkantilista batetik abiatuta, aisialdia kontrolatzeko interes anitzak daudela ez dago zalantzarik; izan ere, kontsumorako ezinbesteko esparrua da. Beraz, aisialdi esparrua kontrolatzen duenak, neurri batean edo bestean bere botere kuota handitzen doa.

Aisialdia ondasun komuna kontsideratzeak eta lantzeak jendartearen gizalegea indartzea dakar, eta ikuspuntu hau gure xede egiten badugu, aisialdiaren barruan antolatzen diren jarduera guztiek beste filosofia eta antolamendua ekarri beharko lukete.

Aisialdi ludikoak, era antolatu batean, balore pertsonal eta sozial sakonak lantzeko baliagarria izan behar du. Jarduera horren atzean sortu behar den dinamikak, gaur egun, gero eta gehiago erabiltzen den kontzeptua bultzatu beharko luke, hau da,

dinamika “prokomuna”; gaurko parametroetara ekarritako auzolana antolatze kontzeptua, alegia.

Zertan datza dinamika “prokomun” (edo XXI. mendeko auzolana) hau? Lehenbiziko eta garrantzitsuenak, benetan aktiboak diren eragileak dinamikaren erabakitzaileak izan behar dira (ikastetxeak, elkarteak, udala, ...). Bigarrenik, norbanakoaren garapena garrantzitsua bada ere, garapen hori jarduera kolektiboan parte hartzearen bidez bultzatu behar da. Izan ere, aisialdi ludikoa era konpartituan eramanez pertsonok sozialago egiten gara. Eta hirugarrenik, aisialdia komunitatea aberasteko eta indartzeko landu eta praktikan jarri behar dugu. Dinamika “prokomuna” defendituz, norberak taldeari eskaintzen dionaren inguruko hausnarketa mahai gainean jarri behar da.

f, Adostasuna: gatazkak gainditzeko eskola

Ideiak elkarren artean talka eginez aberasten dira. Baina horrela izateko giro egokia sortzea komenigarria da. Errespetua, malgutasuna, norberaren ideia azaltzeko gaitasuna, entzuketa aktiborako gaitasuna,.. dira, besteak beste, goraipatu behar diren ideien arteko talkaren ondorioz giro eraikitzailea sortzeko funtsezko baloreak. Aniztasuna ez badago “ideia bakarraren” filosofia indartzen doa. Ideien konfrontazio horretan irtenbide positiboa izateko asertibitatea ezinbestekoa da.

g, Denbora askea: denbora subiranoa

Zein punturaino umeei eta gazteei bidaltzen dizkiegun etxeko lanak ez ote diren beren denbora subiranoaren esku sartzea? Alegia, aisialdia aukera ezberdinen artean eraikitzen da eta horren erabakitzaile azkena aisialdiaren jabea da. Horren arabera, bide maltzurrian erabiltzen diren IKT bezalako telebista, telefono mugikorrak, ordenagailuak, ... gure denbora askearen benetako “birusak” bilakatzen dira.

h, Aisialdia hurbila eta lokala

Globalizazioaren ondorioz, herri garatuetan bizi garenontzat, mundua “txikia” geratu zaigu. Maiz, gure aisialdia kalitatekoa izan dadin, gure inguru naturaletik urrun joan behar garela pentsatzen dugu. Ez dugu erreparatzen mentalitate horrek gure inguru hurbila zenbat ahultzen duen eta gure inguruari zenbat kalte egiten dion. Bultzatu nahi dugun aisialdiak jasangarria izan behar du.

i, Aniztasunean oinarritzen den aisialdia

Hegemonia ez da eredu bakar batetik lortzen eta aisialdia sortzailea izan dadin aniztasuna behar-beharrezkoa da. Errespetuan oinarrituta, ezberdintasuna den hori, gure sormena elikatzeko balore gehigarri gisa hartzeko heziketa zabaldu behar da. Itxurak, izaerak edota hautuak anitzak izan daitezke eta horren onarpenean oinarritu behar dugu gure aisialdia.

j, Komunitatean integratzeko aisialdia

Gure kultura historian zehar beste kulturekin batera bizitzeko gai izan da. Lurraldea, Hizkuntza eta Kultura nazioaren kontzeptua osatzen dute. Gure komunitatea gero eta multikulturalagoa izan arren, gure nazioaren kultura erreferentzia-markoa Euskal Kulturak eta Euskarak izan behar dute, baita aisialdiaren testuinguruan ere.

k, Aisialdia gozagarria izateko prebentzioak barneratu behar dira

Besteak errespetatu behar direla ez dago zalantzarik, baina norberak bere burua ere zaintzen jakin behar du. Gure herriaren ohituretan ohizkoa da aisialdia drogen kontsumoarekin parekatzea eta errealitate horren aurrean debeku sistematikoa ere aisialdiaren barruan egon daitekeen esku sartzea bezala hartzen dugu. Aisialdiaren beste esparruetan bezala, aisialdiaz “erabilera” osasungarria egiteko oinarrizko heziketa ezinbestekoa da.

Amaiera

Gure ikuspuntuaren arabera, baditugu gaur egungo auzolanaren esparrua elikatzeko guztiz elkarlotuta dauden hamaika kontzeptu nagusiak: aisialdia– etnoludikoa - ludikoa – komunitatea - autotelikoa – prokomuna – adostasuna – subiranoa – hurbila – anitza – integratzailea – prebentzioa.

Has gaitezen, beraz, lantzen eta sakontzen Euskal Herriaren testuinguru anitz eta aberats honetan garatu beharko genukeen auzolanean oinarrituriko aisialdia.